

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 11a / 615. zenbakia

lia. (b). **ERRETILLA**. iz. Retejo. Gaillur-teillak apurtu da, baiña erreteilla eittera-
TO. / Guk pe erretillia ein pre-
rixan. Zoro samarrei erretilla
san ohi zaie.



Anaje Narbaza

errétirua. (c). iz. Menopausia. Oin data guxi etorri
jako erretirua.

ERRETÓLIKA, erretólikia (b). iz. Retahila de palabras.
Zuen amandriak demaseko erretolikia sartu zotan gure
familixian gainian. / Zuen alabatxuak dauka erretolikia.
ERRETOLIKIA SARTU, EUKI, BOTA... Azen.: erretóli-
ka ere bai.

ERRÉTORTA, errétortia. (d. Oñ.). "La tela muy fina y
buena que se traía de fuera. Erretortazko izaraak: las sába-
nas muy finas de tela de fábrica." (Izag Oñ).

ERRETRÁPU, erretrapúa. (d). iz. Sasi-mediku edo
kuranderek unjentuz-eta prestatu ohi dituzten errearentza-
ko, ebagientzako eta halakoentzako trapuak. • Paños prepa-
rados que utilizan los curanderos para sanar quemaduras,
heridas, etc. Ermuko kuranderiak ipiniñtako erretrapuekin
osatu jakon besoko eridia.

ERRETRATÍSTA, erretratistia. (c). iz. Fotógrafo.
Artekaleko erretratistian laguna da. Orain fotógrafo
nagusitu da.

ERRÉTRATU, erretratua. (b). iz. Argazkia. • Fotografía.
Erretratuak ikusten pasau giñuan atsaldia. / Erakutsikotsu
Donostian etara giñuan erretratua. Orain argazki edo
fotografixa entzuten da gehiago. **ERRETRATUA**
ETARA. (b). Fotografiaz.

ERRETÚRA, erreturia. (c). iz. Zerbait erein behar den
soroetan, pilan ipinita, belar txar eta zaborrieriaz egiten den
sua. • Montón de rastrojos al que se le prende fuego para
preparar el sembradío. Zaborreriak, lur da guzi, pillia
eiñ eta su emote jakon. Oni esate jako erreturia.



erreturia

ERRÉ
erre-
Irritable, q-
txin samarra. Ik.

ERRETZÁILLE, erretzailia. (c).
artan ama da bakarrik erretzailia.

(c). iz. Kangrejoak harrapatzeko
k ipiniñta dauzkat eta begiratzera
iltze zan erretelekin peskan.

(b). iz. Areka, urak korritu dezan
para el agua. Lenago ura gurera
Urkizta-errekatik. **UR-ERRETE**
n aldenik alden daudenei sangra-
erako etxe batzuetan eta erreten.
Ik. sangradero. **IPURDÍKO**
armasailen arteko harana. Gramua
enian.

illua. (c. Oñ.). "El plato grande de
omer unas seis personas." (Izag Oñ).

(b). da ad. Etxera itzuli. • Retirarse. Atzo
u giñan. Festa edo parranda baten

(b). da ad. Retirarse un participante
ortiva. Iru karrerista erretirau die

d. Jubilarse. Joxe aspalditxonik erreti-
tirua artu. 4. (b). du ad. Inoren lurre-
dua) handik kendu. Ganana erretirau.

biorrak eta, jabia agertu deiñ. errira
ratu zentzua ere badu honelakoetan:

5. (b). du ad. Retirar una acusación.
uk erretiratzan juezera joko juat.

errétirua. (b). iz. Gaueko etxerako
a casa, después de la juerga, normal-
auskalo noiz izango dan erretirua. /
to txarrak ondatu zeban. Erretiro tx-
ondamenditzat jo izan dira. 2. **erréti-**



Jatorre: Isazelaia



JUAN MARTIN ELEXPURU

Bergara aldeko berbak jaso ditu

PILOTA: UDABERRIKO TXAPELKETA JOKOAN/9 • ANTZERKIA: 'STOP AL PÁNICO' GAUR ZABALOTEGIN/11

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 11**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63
- ZAPATUA, 12**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- DOMEKA, 13**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 14**
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74
- MARTITZENA, 15**
ZABALA. Barrenkalea 25 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 16**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- EGUENA, 17**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00. |
| Santa Marina
Zapatuak:
19:00.
Domekak:
13:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Antzuola
Domekak:
10:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | San Juan
Domekak: 11:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Elorregi
Domekak: 12:00. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

1979AN JAIOTAKOAK
1979an jaiotako bazkaria martxoaren 19an, Txarran-txa jatetxean. Izenematea (30 euro) Kutxan irekitako kontuan, hilaren 24ra arte.

MARIAREN LAGUNDIKO ZOZKETA
Mariaren Lagundiko DBHko 4. mailako ikasleek egindako zozketan, 2.576 zentbakia izan da saritua. Txartelaren jabeak Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria eskuratuko du.

SANTA AGEDAKO ZOZKETA
Antzuolan, Santa Agedako zozketan, 2.591 izan da sari-tutako zentbakia. Txartelaren jabeak Juan Jose Agirre (Antzuolan) edo Mari Kruz Iparragirre (Bergara) harategietara jo dezake urdaiazpikoa jasotzera.

ODOL ATERATZEA
Odol Emaileen elkarteak aditza eman duenez, odol ateratzea egingo dute eguaztenean, hilaren 16an, Seminarioan, 18:30ean.

JARDUNENAGENDA

TXAPLIGU TALDEA
Bihar, zapatua, taldekako jolasak izango dituzte Arrizuriagan, 16:00etan. Domekan, berriz, antzerki prestaketa izango dute Txapligu taldekoek, ohiko ordutegian.

TXISKRILABI TALDEA
12-14 urte bitartekoak 16:00etatik 18:00etara elkartuko dira Udal Euskaltegian, Zabalotegin, eta 14-16 urte bitartekoak, berriz, 18:00etatik 20:00etara. Eztabaidak, irteerak, eskulanak, solasaldiak eta beste hainbat jarduera izango dituzte.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolonia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERGARAN

Zezeagak eta Unanuek, binakako finala galdu

Jose Mari Zezeagak eta Mikel Unanuek binakako finala galdu zuten Retegi II.a eta Errandonearen aurka, 1995eko otsailaren 18an, Donostiako Anoeta pilotalekuan. Urte hartako txapelketan ikusitakoaren arabera, Unanue eta Zezeaga ziren faboritoak, baina ezin izan zuten txapela jantzi.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru'



Lanez gainezka.
— Uste dot lanpetuta dabilela eta lagaixozu bakian.

ASTEKOPELIKULAK

'EL AVIADOR'

ZUZENDARIA: MARTIN SCORSESE. **AKTOREAK:** LEONARDO DICAPRIO., CATE BLANCHETT, KATE BECKINSALE.

HARIA. Howard Hughes aberatsak 1972tik 1948ra bizi izandako urteak kontatzen ditu Scorsesek. Oscarretarako 11 proposamen jaso ditu filmak.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan 17:00etan, eta 22:30ean; domekan, 19:30ean; astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTAUZIOA: ●●●●●

'EL MAQUINISTA'

ZUZENDARIA: BRAD ANDERSON. **AKTOREAK:** CHRISTIAN BALE, JENNIFER JASON LEIGH, AITANA SANCHEZ-GIJON.

HARIA. Trevor Reznikek (Christian Bale) fabrika batean lan egiten du. Urtebete da ezin duela lorik egin. Egun batean laneko istripua gertatuko da, eta amesgaizto batean murgilduko da Reznik... Aitana Sanchez-Gijonen partaidetzarekin.

TOKIA ETA ORDUA. Domekan, otsailaren 13an, 17:00etan.

PUNTAUZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 5	-2 °C
MAXIMOA Martitzena, 8	16 °C
ASTEKO EURIA (l/m ²)	2,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	9 °C	6 °C	2,1 l/m ²
Eguena, 3	8 °C	4 °C	0,7 l/m ²
Egubakoitza, 4	7 °C	6 °C	- l/m ²
Zapatua, 5	11 °C	-2 °C	- l/m ²
Domeka, 6	11 °C	0 °C	- l/m ²
Astelehena, 7	12 °C	2 °C	- l/m ²
Martitzena, 8	16 °C	-2 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ATREBENTZIAEZPADA/ Etorkinen ezohiko erregularizazioa hasi da. Ongi hartzen ditugu etorkinak?



AMAIA ERCE
38 urte

Ongi hartzen ditugu, baldin eta eurek ez badute okerreko bidetik jotzen. Gainera, etorkinak ez dira integratzen, ez behintzat lehen belaunaldikoak; euren seme-alabak agian bai.



JUAN GALLARDO
71 urte

Bai, dudarik gabe. Ni orain dela 47 urte etorri nintzen Extremaduratik, eta ongi hartu ninduten orduan. Beraz, orain datozenak ere ongi hartzen ditugu, eta ohitzen dira hemengora.



BELEN ARRUTI
43 urte

Baietz uste dut. Nik etorkinekin egin dut lan tabernan, eta oso langileak zirenez, ongi moldatu naiz eurekin. Denetariko jendea etortzen da kanpotik, eta jarrerak ere askotarikoak dira.



JUAN JOSE AZKARATE
58 urte

Gehienetan bai. Baina hemengoek kezka da kanpokoek lana kentzen ote diguten hemengooi. Dena dela, etorkinek orain egiten dituzten lanak dira hemengoek egin nahi ez dituztenak.



BATIRTZE ARANTZABAL
37 urte

Baietz uste dut. Ni argentinarra naiz, baina gurasoak hemengoak izanik ongi hartu ninduten. Ezagutzen ditudan beste etorkinek ere hemen gustura daudela esan didate.



FRAN URIBEZUBIA
28 urte

Nondik datozen arabera hobeto edo okerrago hartzen ditugu. Afrika iparraldeko gai gaizki begiratzeko zaiela uste dut. Baina eurak ere ghettoetan sartzen dira.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK INFORMAZIO TAULA Irakurle batek esan digu Irizar jauregiko informazio taulan kartelak ez dituztela ekitaldiak pasatuta koan kentzen. "Asteon ikusi dut oraindik abenduko ekitaldiak iragartzen dituzten kartelak daudela ipinita. Informazioaren bila doanak ezer gutxi aurkituko du bertan". Eskaria egin nahi du kartel zaharrak kendu eta informazio berria ipin dezaten. //A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /6

Aratuste-martitzena

Joan dira Aratus-teak. Martitzenean baten batzuek eutsi zioten mozorrotzeko ohiturari.

KIROLA /8

Lidergoan sendo

Lehen gazte mailako futbol taldeak Amaikak Bat hartuko du zapatuan Ipintzan.

KULTURA /11

Antzerkia gaur Zabalotegin

Latirili antzerki taldeak *Stop al pánico* antzezlan eskainiko du gaur, egubakoitza, Zabalotegin.

ASTEKODATUA

664

KONTSULTA GAZTE INFORMAZIO BULEGOAN

Gazte Informazio Guneak urteko txostena kaleratu du. Iazkoa oso urte ona izan zela azpimarratu dute arduradunek. Guztira 664 lagun joan ziren kontsultaren bat egitera.

BESTEKEESANA

“Txikitan ez nuen bereziki ezer izan nahi. Bergararra naiz, margolari askoren jaioterrikoa, eta gure

amak ere margotzen zuen. Txikitatik hasi nintzen margotzen naturaltasunez, eta horrela jarraitu dut. Sekula ez dut margolari izateko erabakia hartu; pinturak berez eraman nau. Arte Ederrak Leioan ikasi nituen eta hiru urte eman nituen Artelekun. Bertan margolari bezala heldutasunera iritsi nintzen. Bergara nire herria da, eta tradizio artistiko handia du. Bilbon hiria deskubritu nuen: maita dut. Donostia, herriz, bizi izateko leku erraza da. Baina nik berdin-berdin margotuko nukeen Madagaskarren bizi izango banintz. Inguruak badu zeresana, noski, baina nik barrutik ateratzen zaidana margotzen dut”
MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA / Margolaria
‘El Diario Vasco’/05-02-06

BERAIEKDIÑOĖ/ Iñigo Iñurrategi



Autoschool-ak eta tranbia

Datua: Gipuzkoan gidabaimena ateratzeko azterketa gutxienez (nik dakidala) gaztelerez, ingelesez edo euskaraz egiteko aukera dago. Beno, ba harrigarria bada ere azterketa gehiago egiten da ingelesez euskaraz baino!

Horretaz jabetu eta harridura aurpegiari buelta ezin emanez nengoe-la konturatu naiz, noski, inguruko autoeskoletara joan eta On Kixoteren itzalpeko liburu, test eta seinalez jositako eremuetara sartzen da gida baimena atera nahian dabilen oro.

Garbi jartzen du agirian bertan: Reino de España. Epaitegiak, osasun etxeak, polizia-etxeak, lantegiak, autoeskolak... gure herrian atzerritar sentiarazten gaituzten eremuak.

Eta gidabaimenak ez dakit, baina ibilgailu pribatuaren erabilera %5 igotzen ari da urtetik urtera. Alegia, erritmo joera hori mantenduz hama-

bost urtean trafikoa oraingoaren bikoitza izango da.

Eta ez da tranbia, autopista edo AHT-rik egongo sortuko dugun *txolopotean* igeri egingo duenik.

Ez dut nik esango tranbia garraio bide kaltegarria denik. Are gehiago, aspaldi behar

genuen gure artean (ai! bere garaian bailarako tren zerbitzua eten ez balitz...).

Baina ez dut edozein modutako tranbiarik nahi. Herritarrok erabiltzeko tranbia nahi dut, ingurumena errespetatuko duena.

Eta ez dut kontsolamendurako tranbiarik nahi. Tranbia, soilik, beste neurririk gabe, mugikortasun arazoari jarriko dioten partxe garestia besterik ez da.

Adi karameluari, gozoa izan arren ez dezagun arazoaren muina ahaztu: gure garapen eredu, gure bizimodu, ez da jasangarria, eta beste eredu-bizimodu batzuk eraikitzen hasi beharra daukagu.

“Ez dut edozein modutako tranbiarik nahi. Herritarrok erabiltzeko tranbia nahi dut”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Maria Agirre
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larranaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GARRAIOAK/ Gaur egungo geltokiañen pareko bizilagunen kezak izan dira geltokia lekuz aldatzeko arrazoi nagusia

Behin-behineko autobus geltokia, zabaltzear

EDU MENDIBIL

Torrekuako behin behineko autobus geltokia abian jartzea uste baino gehiago luzatzen ari da. Hasieran, Udaleko iturriek, abendurako zabalduko zutela adierazi zuten; lanak amaitzear daude orain eta bi aste barru zabaltzea da Udalaren asmoa.

Markesinak kokatu ondoren, Torrekuako geltokian komunak jartzea falta da orain. Komunak kokatzeko lanen adjudikazioa oraindik ez du Udalak egin eta beraz, hasiera baten, komunik gabe jarriko dute abian behin-behineko autobus geltokia.

Beraz, Juanjo Arrieta Gobernazio batzorde buruak esandakoaren arabera, hamabost egun barru zabalduko dute geltoki berria. Lau markesina jarri dituzte geltokian. Udalak Maprover enpresari adjudikatu zizkion mar-

kesinak, 28.997 euroren truke. Era berean, Udaleko Obra eta Zerbitzuetako langileek autobusendako seinaleak margotu dituzte lurrean. Bidaiariak eraman edo jasotzera joango diren autoendako ere lekua izango da Torrekuako geltokian. Ertzaintzaren atzeko pasealekutik zein Torrekuako etxeen paretik joan ahal izango dira bidaiariak geltokira. Etxeen parean zebra bide bakarra da orain, geltokitik nahiko urrun gainera. Bestalde, Torrekuan galdutako aparkalekuak errekuperatzeko Arrizuri nora-

bide bakarrekoa izatea da Udalaren asmoa.

Ibargaraiko bizilagunen kezak izan dira geltokia lekuz aldatzeko arrazoi nagusia. Gaurko geltokiaren pareko bizilagunek kezak helarazi dizkiote Udalari azken bi urteotan. Euren arabera, autobusek zarata, kea eta zikinak sortzen dituzte, eta egoera jasangaitza da.

GELTOKIA, BEHIN-BEHINEKOA

Juanjo Arrietak esandakoaren arabera, Torrekuako geltokia behin-behinekoa izango da. Oraindik tranbiaren trazaketaren gaineko alegazioak aztertzeke dauden arren, baliteke tranbiaren ibilbideak zubi bat izatea Torreku inguruan.

Hasiera baten, behin betiko geltokia Ibargarain egiteko diren etxe berrietan kokatzekoa zen. Edozein modutan, oraindik Udalak ez du gaiaren gaineko erabaki definitiborik hartu.

*Hasiera baten,
komunik gabe
jarriko dute abian
behin-behineko
autobus geltokia*



Geltoki berrian markesinak jarri dituzte egunotan.



Pintura gorria eta horia Epaitegiko fatxadaren kontra

Martitzenetik eguenera bitarteko gauean ezezagun batzuek pintura gorria eta horia jaurti zuten Bergarako Epaitegiko fatxadaren kontra. Fatxadako hainbat tokitan ikus zitezkeen pintura mantxak. Asteazkenean, berritze lanekin aurrera egin zuten Epaitegian. Joan den urteko udaberria ezker ari dira Epaitegiko fatxada eta pareko plaza berritzen.

LABUR

Zuhaitz Eguna ospatzeko landaketa egingo dute hurrengo zapatuan San Martzialen

Zuhaitz Eguna ospatuko da hurrengo zapatuan, hilaren 19an, Bergaran. Goizean baso lanerako tresneriaren erakusketa eta salmenta izango da San Martin plazan eta ondoren zuhaitz landaketa egingo dute San Martzialen. Hara joateko autobusa aterako da azoka ondotik, 10:30ean.

Herri txiroekiko elkartasuna adierazteko sinadura bilketa egingo dute zapatu goizean

Herri txiroekiko elkartasuna adierazteko eta, besteak beste, kanpo zorraren abolizioa eta bidezko merkataritza aldarrikatzeko sinadura bilketa egingo dute bihar, zapatua, goizez, Bergaran.

Ekimen honen inguruko argibide gehiago www.ilpsarea.org helbidean duzue.

Xabier Silveira eta Arkaitz Estiballesekin bertso-afaria hurrengo zapatuan Arranon

Hurrengo zapatuan, otsailaren 19an, bertso-afaria izango da Bergarako Arrano elkartearen, 21:00etan.

Xabier Silveira eta Arkaitz Estiballes bertsolariak izango dira bertan. Afarirako txartelak salgai daude ohiko tokietan, 20 euroren truke. Langabetuendako eta ikasleendako, berriz, 12 eurotan salduko dituzte.

Eguneko menuak!

ZUHAIZTI taberna

Astelehenetik ostiralera eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

ELKARRIZKETA

JUAN MARTIN ELEXPURU/IDAZLEA

“Berbekin batera, mendeetan zehar pilatutako jakinduria zatiak jasotzen ahalegindu naiz”

EDU MENDIBIL

Juan Martin Elexpururen *Bergara aldeko hiztegia. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osotuta* liburua aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, udaletxean, 19:00etan. Gaztetatik egindako lanaren fruitua da Elexpururen azken liburua.

Noiz hasi zinen liburu honetako materiala batzen?

20 urte neuzkala hasi nintzen. Baserrian, etxekoei berba arraro samar bat entzuten nien bakoitzean, apuntatu eta fitxetan jasotzen nuen. 1983an makinara pasatu nuen jasotakoa, artean ez zegoen eta ordenagailurik. Orduan 4.000 berba ziren, eta harrezkero UNE-Den egindako lan monografikoak eta gure bailaran eta Eibar aldean egin izan direnak (Toribio Etxeberria, Juan San Martin, Kandido Izagirre, Txipi Ormaetxea eta Jone Larrañagarenak tartean) aprobetxatuta, 12.000 berba jaso ditugu liburu honetan.

Ahozko informazioa jasotzeko orduan pertsona helduengana joko zenuen, ala?

Bai, ahazko informazioak berebiziko garrantzia izan du hiztegia


osatzeko orduan, eta liburuan badator ahozko lekukoak izan direnen zerrenda. Neuk eta beste batzuek egindako grabazioak erabili ditut, 100 bat ordu guztira. Berbekin batera, mendeetan zehar pilatutako jakinduria zatiak ere topa daitezke: aspaldiko ohiturak, landareen eta eguraldiaren gaineko gauzak, ipuin laburrak eta abar.

Galtzear ziren harribitxi asko topatuko zenituen...

Gure aitona-amonengandik eta gurasoengandik gure belau-naldirako transmisioa oso ahula izan da, hainbat arrazoiengatik; besteak beste, azken mendean bizimodua zeharo aldatu delako. Orain dela 80 edo 50 bat urte arte baserri giroak pisu handia zuen, ofizioetako tresnak eta lanak ere oso diferenteak ziren, garraioan idiak, mandoak eta astoak zebiltzan oraindik, naturarekin zegoen harremana estuagoa zen... Eguraldiari ere asko erreparatzen zitzaion: eskimalek 80 elur mota bereizten ei dituzte. Hemen euria egiten du gehiago eta zaharrek hainbat berba erabiltzen dituzte euri klase desberdinak izendatzeko: *zaparraria, arraria, euri aundixa, euri txikixa, eulanparra, eulordiak, lanbrua, lanbro-ziriña, lanbro-kisixa...* Aspaldiko bizi-moduko gauza asko galdu egin dira, eta normala da, baina batzuk errekeruperatzeko aukera dago. Golda eta gurdia ia-ia museoko tresnak dira gaur, baina eguraldiak eta animaliek berberak izaten jarraitzen dute.

Aztertu dituzun herrien artean bada diferentziarik?

%90 berdina dela esango nuke. Berba bera, nahiz eta akabera



E.M.

diferentea askotan: *txikiñe, txikixe* edo *txikixa* esango da han edo hemen. Baina badira ezberdin esaten diren berbak ere, herri bakoitzari nortasuna ematen diotenak: *antxintxika* Bergaran, *takarraran* Arrasaten, *postaka* Gatzagan, *añiketan* Aramaion....

Berbak baino gehiago, entonazioa, azentua eta akaberak izaten dira ezberdinak normalean.

Nola irakurri behar da hiztegi hau?

Hiztegiak saltoka irakur daitezke, edozein orritan zabaldu eta gauzak topatzen hasi berba ezagunak eta

“Bergarako eta ondoko herrietako 12.000 berba inguru jasotzen dira liburuan”



1956an jaiotakoen afaria

1956an jaiotako bergararrek afaria egin zuten joan den urtarrilaren 28an, Zabala jatetxean. Azken urteotan urtarileko azken zapatuan elkartu izan dira lagunartean afaltzeko. Aurten, 45 lagun inguru izan ziren afarian. Ohikoa den bezala, giro ederrean afaldu zuten aurten 49 urte egingo dituzten bergararrek. Hurrengo urtean, berriz, mende erdia ospatzea izango dute. Hori marka, hori! Bien bitartean, ondo segi eta eutsi sasoiari! ARGAZKIA: KIÑU ARGAZKI DENDA.

LABUR

Txorimalo Lehiaketa Jardunen eskutik

Jardun elkarteak Txorimalo Lehiaketa deitu du Erramu Zapaturako, martxoaren 19rako. Izena emateko epea martxoaren 11ra arte izango da zabalik. Argibideak: 943 76 08 19.

Odol ateratzea eguaztenean

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak dei egiten die herri-tarrei eguaztenean, otsailaren 16an, egingo duten odol ateratzean parte hartzeko. Ohiko den bezala, odol ateratzea 18:30etik aurrera egingo dute, Seminarioko lokalean.

Aratusteetako azken txanpa martitzenean

ERREDAKZIOA

Joan dira Aratusteak. Martitzenean, eguraldia lagun, Musika Eskolako Txaranga, San Martin ikastetxeko ikasleak eta ohiko saltseroak izan genituen protagonista nagusiak. Eskerrak, baten batzuek umoreari eusten diotela... San Joxepe erretiratuen elkarteak ere Aratusteetako bazkaria egin zuten: 100 lagun inguru elkartu ziren, baina han ere mozorrot gutxi... Ondoren, Iñaki Quintanillarekin dantzaldia izan zuten erretiratuen elkartearen.

SARDINA-EHORZKETARIK EZ

Kontuak kontu, Aratuste-martitzeneko giroak nabarmen egin du behera azken urteotan. Mozorrotzen direnak urtetik urtera gero eta gutxiago dira. Txaloga-rria benetan kalera mozorrotuta irten zirenen jarrera. Giroa alaitze aldera, disko festa izan zen San Martin plazan Sointek taldearekin, eta gaztetxoek koadrila gutxi batzuk dantzan ibili ziren. Gauean, hotza kalean eta Aratusteei agur esateko ordua helduta, sardinaren arrastorik ez....



Aratusteekin gozatzeko ez dago adin mugarik, ala?



Musika Eskolako *piratak* giroa alaitzen aritu ziren kalez kale.



Martitzenean ikusitakoaren arabera, *punkak* modan dira berriro.



Drakularen lagunak, *ijitoak*, *piratak*, *tigreak*... Denetik dago koadrila horretan.



Mickey eta Minnie lagun dotoreekin ibili ziren martitzenean.



San Martin ikastetxeko *loretxoak*, udaberriaren atarian.



Mexiko *lindotik* etorritako lagun taldea.



Mendizale talde horrek lortuko zuen zortzimilakoa egitea?

MINGAINARITIRAKA



Lierni Arregi

Jakina dendakoa

Maiatza ezker Jakina dendako dekoratzailea da Lierni Arregi. Sukaldeak ez ezik, bainugelak eta armairuak ere saltzen dituzte, besteak beste. Dendatik bueltatxo bat ematea baino ez dago sukaldeak erabat aldatu direla ikusteko.

Azkenaldian sukaldeak asko aldatu dira, ezta?

Bai. Orain praktikotasunak garrantzi handia du. Hau da, dena eskura izatea. Ez dago zertan armairua hustu, gauza bakar bat ateratzeko. Sukaldearen goialdean, berriz, estetikak agintzen du gehienbat.

Bainugelak ere aldatu dira.

Zentzu berean aldatu dira. Bainugeletan ere armairu handiak dira nagusi, praktikotasuna lortu nahiez.

Janaria prestatzea gustuko duzu?

Ez dut astirik, baina bai, egunero bazkaria egiten dut. Pasta ondo prestatzen dut. Errezeten liburua izaten dut alboan.

Sukaldea ala bainugela garbitzea nahiago?

Sukaldea. Gainera, ontzi-garbigailuarekin segituan jasotzen da sukaldea.

Zein duzu etxeko txokorik gustukoena?

Egongela. Bazkaldu eta afaldu bertan egiten dut, eta lasai egoteko tokia ere bada.

Sukalde txikiak ala handiak?

Gaur egun sukaldeak txikiak izaten dira. Lehenago bitzta sukaldean egiten zen, baina gaur egun ez.

Senarrak ala emazteak erabakitzen du zein sukalde erosi?

Gazteak badira bien artean hartzen dute erabakia. Nagusiagoak izanez gero, emazteak aukeratzen du. Azken horiek nahiago izaten dituzte egurrezko sukaldeak. Senar gazteek, berriz, amaren sukaldea izaten dute eredu, eta emazteek modernoagoak.

Zure azken bidaia?

Joan den udan Almerian izan nintzen.

Aste Santuan nora joango zara?

Bergaran geratuko naiz.

Urte hasieran helbururen bat jarri zenion zure buruari?

Erretzeari uztea, baina oraindik ez dut lortu. Dagoeneko utzi didate erretzeari uzteko liburua, eta ea hori irakurrita lortzen dudan.

Mozorrotu zinen Aratusteetan?

Ez, ez zait gustatzen. Nagikeriagatik da, arropak ez bilatzearren, bestela beharbada mozorrotuko nintzatekeen.

MARIA AGIRRE

BERGARARRAKMUNDUAN

FELIX GARITANO

65 URTE / PARROKOA / DONOSTIAN BIZI DA

“Donostian bergararra naizela diote eta Bergaran, berriz, donostiarra naizela”

MARIA AGIRRE

Bizi erdi Donostian egin du Felix Garitanok. Gaur egun, San Bixente elizako parrokoa da, duela 14 urte hartu zuen ardura hori. Baina aurrez Seminarioan eta Gotzaindegian egindako lanak kontuan hartuta, 34 urte daromatza Felixek Donostian.

San Bixente eliza hiriko gunerik kutunenengan dago, alde zaharrean. Felixen esanetan, gure hori nahiko “zaratatsua” da, baina oso gustura bizi da bertan. “Gainera, San Bixente elizari izugarritzko maitasuna diete donostiarrek, eta bertako parroko izateak prestigioa duela esango nuke. Hala ere, ni baino fama-tuagoa izan zen On Bixente Barrena parrokoa, hura ere bergararra. Hark bataiatu zintuela esateak garrantzi handia du”.

“Donostian bizi garen bergararrok bazkari bat egitea nahiko nuke”

Bergararra edo donostiarra sentitzen ote den galdetuta, Felixek gauza bitxia kontatu digu: “Donostian bergararra naizela diote eta Bergaran, berriz, donostiarra”. Izan ere, oso gazte, 11 urte zituela irten zen Bergaratik. “Abade egin nintzenean, Ordiziara bidali ninduten, eta han Bergara ahaztu egin nuen. Ondoren, Parisera joan nintzen, baina oporretan Bergarara itzultzen nintzen, eta udako oporraldi haie-


tan berriro ere bergarar sentitzen hasi nintzen. Danborrada prestatzen ibili ginen udan, eta era horretan jaioterria berreskuratzen nuen. Gaur egun gutxitan joaten naiz Bergarara, baina San Mártinetan, San Martzialetan eta Pazkoetan ez dut inoiz kalerik egiten. Hala ere, gaizki pasatzen dut, batetik, jende asko ez dudalako ezagutzen, eta bestetik, Pazkoak, esaterako, asko aldatu direlako. Egunez ez da jenderik ikusten kalean. Nik uste dut San Martzialak direla bergararrekin egoteko jairik aproposenak”.

Felixek ez ditu herritar asko ezagutzen, baina hura oso ezaguna da. Hala ere, Txara abadia goitizenaekin ezagunagoa da Bergaran. Bere familiartekoei Txara gaitzizena dute, eta Felixek ere ezizen hori du.

Gaur egun, San Bixente parrokiako lanetan buru-belarri ari da Felix, baina Donostiak aisialdirako aukerak ere ematen dizkio. Zurriolatik bueltatxo bat ematea “zoragarria” dela dio. Futbola ere oso gustuko du, eta Realzale amorratua da, nahiz eta azkenaldiko emaitza txarrak direla-eta gogo handirik gabe topatu dugun: “Duela 34 urte Realeko bazkide naizela, eta Anoetara joaten naiz partiduak ikustera. Hala ere, oso gaizki pasatzen dut, eta ez dakit bazkide izateari ez ote diodan utziko”. Bestalde, musika beste zaletasunetarikoa bat du, eta hiriak hainbat aukera eskaintzen dizkio. Bere kabuz, edo gonbita egiten diotelako, kultura ekitaldietara joateko aukera izaten du.

Hala ere, garbi du “jet-set donostiarrean” sartzeko asmorik ez duela: “Gainera, parrokiaren zeregin asko dut oraindik”.

Gaur egun etorkinekin lan handia dago egiteko. Gizartearen arazoei, orokorrean, arduratzen naute”. Eta, bukatzeko, bete gabe duen amets baten berri eman digu: “Donostian bizi garen bergararrok bazkari bat egitea”.



- ▶ margo orokorra
- ▶ dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidriren margolanak
- ▶ Imitazioak

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA-HERNANI
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777



943 76 20 61
BERGARA

FISIOTERAPIA KONTSULTA BERRIA

Irene Unzueta

Ordua hartzeko:
San Martin Osasundegia
Ramon M^a Lili 2.

943 76 59 39



ARTXIBOA

Bigarren kadete mailako taldeak Antzuolaren aurkako derbia izango du zapatu eguerdian, Ipintzan.

FUTBOLA

Bergara-Amaikak Bat lehen gazte mailako partidua bihar, Ipintzan

Bergarrek sailkapenean bigarren dagoen Oriokori irabazi zioten zapatuan, 1-2

EDU MENDIBIL

Lehen gazte mailako Bergara eta Amaikak Bat futbol taldeak aurrez aurre izango dira bihar, zapatua, Ipintzako futbol zelaian, 17:00etan. Bergarak sendo jarraitzen du sailkapenean lehen postuan.

David Lopez de Abetxuko eta Jose Ramon Beristainen taldeak bigarren postuan dagoen Orioko taldeari irabazi zioten aurreko zapatuan, 1-2. Bergarrek partidu bakarra galdu dute orain arte eta gol gehien egiteaz gain (112), gol

gutxien jaso duen taldea da: 16 gol besterik ez dizkiote sartu. Bihar, zapatua, Amaikak Bat taldearen bisita izango dute. Debarrak sailkapenean erdialdean daude.

BIGARREN KADETE MAILAN, DERBIA

Zapatuan beste hiru partidu jokatuko dira Ipintzan: lehenbizi, infantil mailan, Bergarak Arizmendiren kontra jokatuko du eta ondoren, bigarren kadete mailako taldeak Antzuolaren aurkako derbia izango du, 12:00etan. Sailkapenean bergarrek sei punturen alde ateratzen diete antzuolarrei: Aitor Gorosabelen

mutilak laugarren postuan daude, 29 punturekin, eta Antzuola bosgarren dago.

Arratsaldean, berriz, senior mailako neskek Allerru hartuko dute, 19:00etan. Larraitz Madariagak zuzendutako taldeak ez du oraindik partidurik irabazi igoera fasean. Jokatutako bi partiduetan puntu bakarra lortu dute. Azken jardunaldian Añorgan galdu zuten, 4-3.

Azkenik, domekan, alebin mailan, Bergara eta Anaitasunaren arteko lagunarteko partidua izango da Ipintzan, 10:30ean hasita.

FOTOKIROLA



Maximo Zangitu zena omendu zuten

Urtetan pala txapelketako epaile lanetan aritutako Maximo Zangitu zena omendu zuten zapatuan Elgetan, Debagoieneko kirol zirkuituaren amaiera ekitaldian. Bergarako Udal Kirol Zerbitzuko zuzendari izandako Inaki Ugarteburuk plaka oroigarria eskaini zion Zangituren familiari. Irudian Garbiñe Arrieta alarguna eta Inaki semea egun Gipuzkoako Diputazioko kirol zuzendari den Ugartebururekin.

Kadete mailako nesken saskibaloia partidua gaur

E.M.

Bergara KEko kadete mailako neskek partidua izango dute gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundian, 19:15ean.

Jokin Perezek zuzentzen duen taldeak Irungo Carnicas San Marcial taldearen aurka neurtuko ditu indarrak. Liga txapelketa bikaina jokatuko ondoren, kopa txapelketan ari dira orain bergararrak. Hain zuzen ere, kopako lehenbiziko partidua izango da gaurkoa.

Ligan, seigarren tokian sailkatu ziren bergararrak, bosgarren sailkatu zen Loiolarekin berdinduta, eta gutxigatik ez ziren Gipuzkoako Txapelketako finaldietarako sailkatu. Bigarren fasean jokatutako hiru partiduak irabazi zituen Bergarak. Orain, kopan, faboritoen artean dira bergararrak

SENIOR MAILAKO TALDEA, ZAPATUAN

Senior mailako mutilek Kostkas taldearen aurka jokatuko dute zapatuan kiroldegian, 19:15ean.



ARTXIBOA

Kadete mailako nesken denboraldi bikaina egiten ari dira.

TRIATLOIA

Debagoieneko Antxintxika Triatloi Taldea denboraldirako lizentziak egiten hasi da

Debagoieneko Antxintxika Triatloi Taldea hasi da denboraldia gertatzen. Taldera hurbildu nahi duten guztiek 660 52 95 16 telefonora (Aitor Rementeria) dei dezakete argibide eske.

Duatloi eta triatloi denboraldi berrirako lizentziak berritzen hasita dira triatloizaleak.

ESKIA

Formigalera eskiatzera joateko irteera otsailaren 25etik 27ra Pol-Polen eskutik

Pol-Pol Mendizale Taldeko eski sailak otsailaren 25etik 27ra Formigalera joateko irteera antolatu du. Ondoren beste bi irteera egingo dituzte: martxoaren 4tik 6ra Baqueirara eta martxoaren 25etik apirilaren 2ra Alpeetara.

Argibideak eta izenematea Pol-Poleko bulegoan, astelehenean egubakoitzera, 19:00etatik 20:30era edo 943 76 48 51 zenbakian.

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Canalejas-KMP Komando
10:30: K. Piperrak-Belengua KMP
11:30: Egurre-Kalaveras All Blacks
12:30: PDS-All Blacks Kalaveras
16:30: De Resaka-Irubide Niu Tim
17:30: Ganbara-Niu Tim De Resaka

ZAPATUAN, KANPOAN

18:30: Bayer-Agirrebeña Ganbara

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Txipiron-Niu Tim SDTNT
10:30: SDTNT-Txipiron Niu Tim
16:00: Brescia-Fit Automocion Cosa Nostra
17:00: Errotagain-Cosa Nostra Brescia
18:00: Ganbara-Pirulotarrak Pagomendi
19:00: Mongatxurak-Pagomendi Pirulotarrak

DOMEKAN, KANPOAN

11:30: SDTNT-Fac A Ze Flaxa
12:30: Arrano-A Ze Flaxa Fac

PILOTA

Udaberriko Txapelketako partiduak gaur iluntzean Udal Pilotalekuan

Bigarren kadete eta bigarren senior mailetako partiduak Eibarren aurka, 19:45ean


E.M.

Udaberriko Txapelketaren barruan, Bergara KEko pilotariak eibartarren aurka jokatuko dute gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan. Bigarren kadete mailan eta bigarren senior mailan izango dira aurrez aurre, 19:45ean hasiko den jaialdian.

Lehenbizi herriko Udaberriko Txapelketako bizpahiru jokatuko dira gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan. Gabon Sarian gertatzen den moduan, pilotari gaztekoek jardungo dute Udaberriko Txapelketan. Benjamin, alebin eta kadete mailetako 80 bat pilotari izango dira lehen hurrengo asteotan.

LAUGARREN JARDUNALDIA

Gipuzkoako Udaberriko Txapelketako laugarren jardunaldia izango da gaurkoa. Bigarren kadete mailako bikoteak orain arte jokaturako hiru partiduak galdu ditu. Ikusteko dago Reyes Azkoitia entrenatzaileak zein bikote jarzzen duen gaur jokoan eibartarren aurka aritzeko.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Iñarrak eta Herranek 22-15 irabazi zioten Aretxabaletako bikoteari zapatuan.

Bigarren senior mailan, Beñat Iñarrak eta Joseba Herranek Azpeitia eta Aretxabaletako bikotei irabazi zieten eta Antzuolaren kontra galdu egin zuten.

EUSKAL LIGARI AGUR

Ander Muguruzak eta Igor Gutierrezek ez zuten Euskal Ligako finalerdietarako sailkatzerik

izan, aurreko asteburuan Ortue-llan 22-10 irabazi eta gero.

Bestalde, *Berrria* egunkariak antolatutako Herri Arteko Txapelketan, Hernanik erraz irabazi zion Bergari aurreko egubakoitzean. Kadete mailan 22-4, gazte mailan 22-4 eta senior mailan 22-8 nagusitu ziren hernaniarrak.

FOTOKIROLA



Usurbil liderra bisitari kiroldegian

Kadete mailako mutilen taldeak Usurbil hartuko du domeka eguerdian kiroldegian, 12:00etan. Usurbildarrek ez dute oraindik partidurik galdu eta sailkapeneko lehen postuan dira. Xabier Lijoren taldea, berriz, hirugarren tokian dago. Bergararrek aukera paregabea izango dute domekan liderrarekiko aldea murrizteko.

Bestalde, gazte mailako neskek Pulporen aurka galdu zuten zapatuan, 12-15.

1799
2005

2 urteko umeen gurasoentzat
aurkezpen bilera otsailaren 14an,
astelehena, arratsaldeko
18.00 etan

Desberdintasunaren onarpena
Kristau ikuspegia
solidaritatea
Heziketa Euskalduna
Elkarbizitza

etorkizunari begira
Mariaren Lagundia Ikastola

Espaloia 1
Tlf: 943 76 25 40-41
Fax: 943 76 33 31
e-mail: ikastola@mlagundia.net

diseinu eta argizkia URKAN S.L.



ARANZADI IKASTOLA


2005/06 ikasturterako matrikulazio epea zabalik otsailaren 14tik 25era.

ZATOZ ETA EZAGUT GAITZAZU
OTSAILAREN 19AN,
ARRATSALDEKO 4,30ETIK AURRERA.

elkarrekin hazi, hezi eta bizi euskaraz



Haur Hezkuntza




Lehen Hezkuntza



D.B.H.

Batxilergoa



ARANZADI IKASTOLA
Herri Onurako Irakaskuntza kooperatiba

H A U R H E Z K U N T Z A T I K B A T X I L E R G O R A

ELKARRIZKETA

JOSU ARANTZABAL/AMODIOZKO GUTUN LEHIAKETAKO BERGARAKO SARIDUNA

“Maiteminduta egon barik idatz daiteke amodiozko gutuna, nik hala egin dut”

MARIA AGIRRE

Josu Arantzabal izan da herriko onena Amodiozko Gutunen Lehiaketan. Astelehenean, San Valentín egunez, sari banaketa egingo dute kultur etxean, 19:00etan.

Espero zenuen Bergarako gutun onenaren saria irabaztea?

Ez, inondik ere ez. Ezustekoa izan da.

Zer dela eta idatzi zenuen amodiozko gutuna?

Gabonetan gaixorik egon nintzen, eta, aspertu egiten nintzen, idaztea erabaki nuen. Duela lau urtetik dezente irakurri eta zertxobait idazten dut. Bergarako Literatur Lehiaketan ere lehenengo saria irabazi nuen poesia sailean. Amodiozko Gutunen Lehiaketan, berriz, gutxi idatzi behar delako animatu nintzen parte hartzera.

Lehiaketa irabazi duzula eta, zer esan dizute lagunek?

Zorionak eman eta adarra jo didate. Gutuneko protagonista nor zen jakin nahi zuten.

Eta zer esan diezu?

Ez dela egiazkoa, fikziozko pertsonaia dela.

Sinetsi dizute?

Gutunean badira egiazko gau-

za batzuk, baina gehienak fikziozkoak dira. Nik, esaterako, ez nuen Institutuan ikasi.

Bueno, hori beharbada nahasteko jarriko zenuen. Baina, hala ere, ausartuko zinateke egiazko maitasun istorio bat kontatzen?

Maitasun kontuak pertsonalak direla iruditzen zait.

Idatz daiteke amodiozko gutunik maiteminduta egon barik?

Maiteminduta egonez gero, beharbada hobeto sartuko zara paperean, baina nik neuk maiteminduta egon barik idatzi dut.

Zenbat egunean idatzi zenuen?

Egun bitan. Azken egunean aurkeztu nuen.

Epaimahaiko kideen esanetan, zure gutuna freskoa da eta erdarakadaz beteta dago.

Hizkuntza lokalera jo dut gutuna idazteko orduan. Azken finean, gaur egun kalean gazteok horrela hitz egiten dugu, erdarakada asko sartzen ditugu, eta gaztelaniazko esaerak ere bai.

Astelehenean San Valentín eguna da. Zein plan duzu?

Ezer berezirik ez, beno saria jasotzera joango naiz. Baina ez dut San Valentín eguna ospatzeko asmorik, oso egun komertziala dela uste dut.



MARIA AGIRRE

“Gabonetan gaixorik egon nintzen, eta aspertuta nengoenez, idaztea erabaki nuen”

“Lagunek zorionak eman eta adarra jo didate. Gutuneko protagonista nor zen jakin nahi zuten”

“Ez dut San Valentín eguna ospatzeko asmorik; oso egun komertziala dela uste dut”

‘Stop al pánico’, umorea gainezka duen antzezlana gaur Zabalotegi aretoan

M.A

Latirili taldeak Stop al pánico antzezlana eskainiko du gaur, 22:30ean, Zabalotegi aretoan. Obraren helburua barre eragitea da. Elkarren artean zerikusirik ez duten emakume bi dira protagonistak.

Stop al pánico antzezlana Estatu hainbat hiritan eskaini dute Latirili taldeko kideek, eta gaur Bergaran izango da beste emaldi bat. Latirili antzerki taldea Galizian, Vigon, jaio zen duela 16 urte, baina gaur egun Gasteizen bizi dira taldeko kideak.

ANTZEZLAN KOMIKOA

Gaur herrian eskainiko duten antzezlanean emakume bi izango dira protagonista. Euren artean zerikusi gutxi dute; izan ere, horietako batek fantasia larregi du, eta bestea, berriz, oso serioa



LATRILI

Emakume bi dira protagonista *Stop al pánico* antzezlanean.

da. Eta egoera horretan, moz-kortuta dagoen pertsonaia bat azalduko zaie, eta agerpen horrek gatazka piztuko du emakume bien artean. Latirili taldeko kideek

esan digutenez, antzezlana erabat komikoa da, eta barre eragitea da helburu nagusia, baina, era berean, mezu bat helaraziko diete ikusleei. *Stop al pánico* obra defi-

nitzerakoan, *woman show* bat dela esan digute.

Antzezlana hori kalean ere eskaini badute ere, Bergarako kasuan, barruan, Zabalotegi aretoan antzeztuko dute. Sarrera orokorra 6 eurokoa da, baina 26 urte baino gutxiago dutenek 4,5 euro ordaindu beharko dute, eta 17 urte baino gutxiagokoek euro bi baino ez. Gaztelaniaz izango da obra.

ESKARMENTU HANDIKO TALDEA

Latirili taldea lau lagunek osatzen dute, baina esan bezala, gaur herrian eskainiko duten obran aktorea bi izango dira nagusi.

Antzerki taldeak eskarmentu handia du, eta hainbat alor desberdin lantzen dituzte. Antzeztu ez ezik musika jo, dantza egin eta zirkoa antolatzekeo gai dira. Gaur Bergaran antzerkia nagusi izango bada ere, musika zuzenean entzuteko aukera ere izango da.

KULTURAPILULAK

Josu Okinak erakusketa jarri du Oñatin

Josu Okina bergararrak margolan erakusketa jarri du Oñatiko kultura etxean. Guztira 42 margolan jarri ditu ikusgai, horietako asko paisaiak. Otsailaren 20ra arte izango da erakusketa zabalik, 18:30etik 20:30era.

Mari Karmen Laskurainen margoak Eibarren

Mari Karmen Laskurain bergararraren margo erakusketa ikusgai izango da domekara arte Eibarko Arrate kultur elkartearen (Zuloagatarren, 3). Zapatuan eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara izango da zabalik erakusketa. Hainbat lan zintzilikatu ditu Laskurainek.

SAN MARTIN ESKOLAN ATEAK ZABALIK



San Martin Agirre
herri eskola

Otsailaren 12an 14:30etik 19:30era



EGITARAUA

- Erakusketak
- Tailerrak
- Zozketak
- Kixka taldea "Bolaluma" obrarekin

- Informatika
- Opariak
- Irrati saioa
- Karaokea

- Auzoetako eskolak ezagutzeko aukera telefono hauetara deituz:

ZABALOTEGI 943 76 08 17

OSINTXU 943 76 45 43

MARTOKUA 943 76 08 63

SAN MARTIN ESKOLA

Boni Laskurain 25 Tel: 943 76 21 47

www.goieskola.net/sanmartinagirreeskola



MATRIKULAZIO EPEA OTSAILAREN 14TIK 25ERA



IPINTZA INSTITUTUA

Boni Laskurain 19 Tel: 943 76 31 42

www.goieskola.net/ipintzabhi

IPINTZA INSTITUTUAN BILERA INFORMATIBOA

DBHko ikasleei (12-16 urte) eta gurasoei zuzenduta.

Otsailaren 16an 18:30ean

Bilera amaitu ondoren ikastetxea bisitatzera gonbidatuta zaudete

Integratzailea • Euskalduna • Plurala • Dohainia



SAN MARTIN
BERGARAKO

IPINTZA
IKASTETXE

M. ALTUNA
PUBLIKOAK

E, TXO!

EUSKAL HERRIKO SMS LEHIAKETA

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK, SMS lehiaketa antolatu du. Euskal Herriko gazte guztiek parte har dezakete lehiaketan. UEMAKoek ez dute euskal lokuzio historikoen bilduma egin nahi, berria asmatu baizik. Euskal Herriko I. SMS lehiaketa 2005eko otsaila edo martxoan egitea aurreikusitako da. Laster webgune bat jarriko dute, eta bertan izango da esku hartzeko aukera. Asisko Urmeneta, Kike Amonarriz, Miren Segurola, Miren Artetxe ta UEMAKo herri bateko gazte batek osatuko dute epaimahaia.

TOPAGUNEAREN ESKUTIK IKASTAROAK AUKERAN

Topaguneko Haur eta Gazte sailak, *Asteburuetan.com* gazte programaren bigarren edizioa abian jarri du. Asteburuetan nahiz astean, herri eta auzoetan 45 ikastaro antolatu eta horietan esku hartzeko aukera emango dute.

SHARON STONER ETA POTEMKIN DISKO BATEAN

Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur, Gazte eta Garapenerako Lankidetzak Zerbitzuek, *Gaztemaniak!* izeneko ekimenaren barruan, CD bat argitaratu dute. Gipuzkoako hamar talderen kantuak bildu dituzte, eta Sharon Stoner eta Potemkin talde oñatiarren kantu bana ere bai. Sharon Stoner taldeak, Danbaka lehiaketa irabazi zuen. Horietaz gain, honako taldeen kantuak jaso dira CDan: Handicraft, Neu, Miss Dinamarca, Saioa, Mikel Uharte, Sunae Dae, Imanol Costas eta Frida Pipol.

NESKEK, MUTILEK BAINO GUTXIAGO IRABAZI

Espainiako Estatuan egindako ikerketa baten arabera, neskek mutilek baino gutxiago irabazten dute. 15-29 urte bitarteko gazteei dagokienez, neskek %27 gutxiago irabazten dute. Hau da, batez beste, 200 euro gutxiago. Nahiz eta emakumezkoak hobeto prestatuta egon ikasketei dagokienez, gizonezkoak gaztetatik hasten dira diru gehiago irabazten.

Bestalde, kirol alorrean, mutilendako aukera gehiago dagoela ondorioztatu dute.

GUREGAIK/ BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA URTEKO TXOSTENA KALERATU DU

Iaz 664 kontsulta egin ziren gazteei zuzendutako informazio gunean


M.A.

Gazteen intereseko informazioa eskaintzen duen bulegoak iazko balorazioa egin du, eta oso urte ona izan zela azpimarratu. Guztira 664 lagun joan ziren kontsultaren bat egitera. Uztailean izan ziren gehien.

Iaz, uztailean, 108 lagun hurbildu ziren gazteen informaziorako gunera kontsultaren bat egitera. Uztailean izan zen gazte gehien erakarri zituen hilabetea. Pentsa daiteke udako oporren atarian oporren inguruko galderak egitera joango zirela gehienak, baina, bulegoko arduradunek zehaztu dutenez, era horretako informazio bila zenbat gazte joan ziren ez zuten zenbatu. Beraz, beste zalantza batzuk argitzeko asmoz, uztailean hurbildu ziren gazte gehien bulegora. Ekaina ere hila-bete garrantzitsua izan zen, 63 lagun hurbildu baitziren galderaren bat egitera. Eta martxoan ere aipatu beharrekoa, 91 lagun bisita jaso baitzuten. Otsailean, berriz, izan zen kontsulta gutxi, 26 baino ez. Gainontzean, bataz beste, hileroko 40-50 kontsulta izan ziren iaz. Guztira, 664. Kopuru hori, eta beste jarduerak batzuk kontutan hartuta, bulegoko arduradunek iazko urtea "oso positiboa" izan zela azpimarratu dute.

BESTE JARDUERA BATZUK

Iaz, bestalde, berriro egin zuten webgunea. Era horretan, euska-



Gazte bulegoak webgunea berriro zuen iaz.

raz eta gaztelaniaz eskura dezakete gazteek informazioa Interneten. Lehiaketak ere azpimarratu beharrekoak, *Gomendatzen dizut* izenekoan, oporretarako

tokiak gomendatu behar ziren. Iaz lehenengo edizioa egin zen, eta Amaia Morenok irabazi zuen. Guztira zortzi lagunek esku hartu zuten lehiaketa hartan. Bes-

Hilero 40-50 kontsulta izan ziren iaz; arduradunen esanetan, urtea "positiboa" izan zen

Turismoarekin lotutako galderak egitera jende asko hurbildu da, eta 40 gidaliburu dituzte

LOTSABARIK/ Irantzu Bolaños

"Gazteok jaietan ligatzen dugu gehienbat"

M.A.

Irantzu Bolañosek oso gustuko du dantza egitea, eta salsa ikasten ibilitakoa da. Musika ere beste zaletasunetarikoa bat du. Etorkizunean, berriz, ume txikien irakasle izan nahi duela aitortu digu.

Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Gazteendako gauza gehiago antolatuko nuke, eta lokalak alokatzeko aukera ere emango nuke.

Zure karpeta zer irudi edo pegatina daukazu?

Kirol eta arropa marken pegatinak ditut.

Telebistako saioren gorrotagarria? Eta gustukoena?

Salsa rosa eta *Aquí hay tomate* gorrotatzen ditut. Bestalde, *Goenkale* asko gustatzen zait, eta baita *Aquí no hay quien viva* ere.

Pertsonaia higuigarria? Eta gustukoena?

Bertatik bertara saioko aurkezlea, Estitxu Fernandez, oso ona da eta jatorra dela ematen du. Belen Esteban, berriz, ez dut bate-re atsegin.

Zerk amorratzen zaitu?

Gezurra esateak eta jendea zure bizitzan sartzeak.

Zer estimatzen duzu besteengan?

Laguna izatea, eta laguntza ematea.

Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Familiari, laguneri eta ikasketei.

Zure bertute bat? Eta akats bat?

Nire lagunaren laguna naiz, eta konfiantza ematen dut. Akatsa, berriz, mendekaria naizela.

Zelan ligatzen duzue gazteok?

Jaietan gehienbat, eta bereziki trago batzuk hartu ostean.

Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?

Jatorra, ederra, alai eta beltzarana.

Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?


Brasil edo Italiara lagunekin.

Etorkizunerako amets bat?

Lana izan eta familia eratu.



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zenbat urte bete berri ditu ikastetxe honek eta zein da bere izena?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|---|---|
| <p>1.
Zenbat berba inguru jaso ditu Juan Martin Elexpuruk bere azken liburuan ?</p> <p>A/ 7.000.
B/ 4.000.
C/ 12.000.</p> | <p>2.
Nor da kadete mailako nesken saskibalo taldeko entrenatzailea?</p> <p>A/ David Urbina.
B/ Jokin Perez.
C/ Xabier Lijo.</p> | <p>3.
Zein talderena da <i>Stop al panico</i> izenburuko antzezlanaren?</p> <p>A/ Ados.
B/ Latirili.
C/ Tantaka.</p> |
|--|---|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IMANOL CERDEIRArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Imanol! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Gorla eta Itxumendi.** / Galde debalde: **1-C, 2-B, 3-A.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

RAM esnea

Litroko brika

0,62 €

103 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK

Xabier Maria Munibe (eta 4)


KOLDO PEREIRA

Munibe mintegiko zuzendaria izan zen hil arte, eta 1767an Bergarara etorri zen bizitzera. Mintegian estatuko eta nazioarteko irakasle handiak izan zituzten. Peñafloredaren lanak emandako fruitu oparoak Espainia osora zabandu ziren: ekonomia-elkarteen onuraz jabetuta, bertako agintariak antzeko elkarteak sustatu eta herriaren adiskideen 83 elkarte sortu zituzten Espainia osoan, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak urratutako bideari jarraiki.

Bergarako Errege Mintegiak eragin nabarmena izan zuen kulturaren alorrean, Espainiako 39 probintziatiko eta Latinoamerikako 14 herritako ikasleak izan baitzituzten mintegian. Mintegia Espainiako lehen eskola teknikoa izan zen, eta Europa jantzia erabiltzen zituzten ikasketa-planen antzekoak landu zituen lehenbiziko ikastetxea. Horrek guztiak argi erakusten du nolako garrantzi handia izan zuen Peñafloredaren lan soziokulturalak.

Peñafloreda 1785eko urtarrilaren 13an hil zen Bergaran, ia ustekabean. Xemeingo Andre Mariaren elizan, Markinan, lurperatu zuten.

Peñafloreda 1785eko urtarrilaren 13an hil zen Bergaran eta Markinan lurperatu zuten



Informatika-arazoaren konponbidea


Mintegi 5, behea (Toki-eder)
20570 Bergara
Tel.: 943 76 48 59

ZABALDU BERRIA

IKASTARO PERTSONALIZATUAK

- Windows
- Word
- Excel
- Access
- Powerpoint
- Msproject
- Internet
- Mekanografia
- eta abar

- Ekipo informatikoak eta konfigurazio pertsonalizatuak dituzten osagarriak salgai
- Konponketa eta mantentze-lanak
- Sare informatikoen instalazio eta konfigurazioa (Internet, Intranet, etab.)



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak
- gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

RETRATUZAHARRA

BERGARA

Gazte mailako
futbol taldea,
1979

Bergara Kirol Elkarteko gazte mailako bi futbol taldeak gogor ari dira aurten. Lehen taldea sailkapeneko lehen tokian dugu eta bigarren taldeak, berriz, iguera fasean lihardu. Badirudi harrobi bikaina duela talde mahoneroak. Preferente mailako talde nagusia, berriz, ez dabil horren in aurtengo denboraldian...

Alboko argazkia atera zenetik hona 25 urte igaro dira dagoeneko, 1979-80 denboraldikoa duzue-eta. Sasoi hartan Jose Luis Beitiak zuzentzen zuen gazte mailako taldea eta taldeko jokalarik gehienak alde nagusian jokatzera iritsi ziren. Hainbat jokalarik hirugarren mailan ere jokatu zuten Bergararekin. Garai hobeak ziren haiek...

Erretratua Agorrosingo zelaian atarata dago, eta hauek dituzue bertan agerzen direnen izen-abizenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jose Luis Beitia entrenatzailea. Pepelu Pascual, Jose Mari Arzelus, Bigen Jribesalgo, Aitor Gallastegi, Javier Oregi, Ion Garagorri, Luis Garai, Paco Osuna, Exomin Bengoa eta Roberto Nieto.

Makurtuta: Toño Retes, Javier Plazaola, Iñaki Arana, Diego Gonzalez, German Balantzategi, Ibon Gallastegi, Jose Antonio Mulas eta Alberto Elkorobarrutia.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Argazkia: BKE artxiboa.

GABILONDO
INMOBILIARIA

txebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53



Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 11a / 222. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Erreka bideratzeko proiektua onartu dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Joan den egubakoitzean onartu zuten, osoko bilkuran, Deskarga erreka bideratzeko proiektu egokitua. Horren arabera, udaletxe atzean estalitako gainezkabidea egingo dute. Plazan, berriz, erreka agerian geratuko da eta plataforma bat ipiniko dute.

Udalbatzak aho batez erabaki du Deskarga erreka bideratzeko proiektu egokitua onartzea. Proiektua Enrique Elkorobere-zibarrek idatzi zuen, Eusko Jaurlaritzaren aginduz.

Proiektuaren arabera, udaletxe atzean estalitako gainezkabidea egingo dute. Hain zuzen, sei metroko zabalera eta bost metroko altuera izango ditu. Ondarreko transformadore ingurutik hasi eta Eperra elkartearen atzeko partera iritsiko da.

Bestalde, plazan lurra altxatu eta erreka kanalizatuko dute. Kanalak lau metro eta erdiko zabalera izango du. Errekaren gainean, udaletxearen aurreko aldean, 19 metroko plataforma bat ipiniko dute eta Euskadiko Kutxaren eta Surpe tabernaren



Gainezkabidea udaletxearen atzeko aldean egingo dute estalita.

parean pasabide bana, sei metro eta erdi eta bederatzi metrokoak, hurrenez hurren. Lanok amaitutakoan plaza urbanizatu egingo dute.

Gertu Gae plataformak proiektu horrekin ados ez dagoela azaldu du, besteak beste erreka bistaraziz plazari duen funtzionalitatea kentzen diolako.

ARGINDARRA



Linea berriak 13.000 voltez hornitzen ditu Antzuolako etxeak.

Iberdrolak argiztapen linea berria ipini du

I.A.

Antzuolari 13.000 voltekoko etxeko zerbitzua emango dion hornidura linea bikoitza izango da herrian hemendik aurrera. Udalak Iberdrola enpresarekin egindako hitzarmenaren ondorioa da linea berri hori.

Iberdrolak Osintxu-Gorla lineatik hornitzen zuen orain arte Antzuola. Linea horrek hainbat kalte izan ditu; azkena, urtarilaren hirugarren astean.

Larriena iazko elurte gertatutakoa izan zen. 24 orduz eten zuten herrian.

Azken aldiz argiztapen eten zen aste berean. Iberdrolak abian jarri du Linea horrek 13.000 voltez hornitzen du Antzuola. San Antonio auzotik bitartez bermatu nahiz hornidura seguruagoa orain arte bezalako etengabe izango ez duena.

HERRITARREN HITZA / Joseba Lezeta • Kazetaria

Bi mutil

Bi mutil dira. Egunsentian joaten dira Antiguan gora Irain aldera. Oinez sarritan. Bizikletan noizbehinka. Sarritan entzun izan ditut etxeko sukaldean duela berrogeita hamar urteko kontakizunak. Gure aitajauna zela joaten zen lanera Plaentziara. Amanda eta ama baserritik kalera etortzen zirenekoak. Bi mutil hauen antzera.

Haiek Irain aldean dabil-tzan bitartean, Antzuola bere horretan geratzen da. XXI. mendeko arazoak ditu. Arazoak ala egoera berriak. Eskualdeko jendea etortzen ari da bizitzera (bizitzera ala lo egitera?) gure

lursailtako etxe berrietara, ondoko herrietan etxeak garestiago daudelako, ez Antzuola bereziki gustatzen zaielako. 2.000 biztanletik behera egin zuenean argi gorriak piztu ziren. Nora goaz? Orain 2.000ko muga hori gaudituz da eta argi gorriek, halere, piztuta segitzen dute.

Udalak Beheko Auzoan egin nahi dituen etxeei buruzko eztabaida piztu da. Dirudenez,



“Beheko Auzoan egin nahi dituzten etxeei buruzko eztabaida piztu da”

Baina zela? Herri txikia gara, leku gutxi dugu, mugak. Eusko Jaurlaritzak duela urte

hala diote zurrumurruak, herriko zenbait lantokik leku arazoak ditu hazteko. XXI. mendeko arazoak, egoera berriak.

Bidegurutzean dago Antzuola: XX. mendeko bigarren erdian eraikitako industria-herria izaten segi ala bizitegi-herria bihurtu. Ala biak batera izan.

batzuk onartutako plangintzan zeregin nagusia ematen zion Antzuolari Debagoiena eskualdean: bizitegi-herria. Eta hartara doa poliki-poliki. Hala ematen du.

Orduan ez zen kezarik agertu herritarrengan, jokoan zegoena garrantzitsua izan arren. Urrutian geratzen zen.

Benetako eztabaidaren premia du Antzuolak. Etxeak non egin baino garrantzitsua da zer egin eta zertarako zehaztea.

Badatoz bi mutilak Irainen behera. Oinez gaur. Pito bat ardura zaizkie haiei gure kontuak.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Otsailak 12

16:00: Antzuola-Urki (2. errege)

18:00: Antzuola-Eibartarrak (1)

PILOTA

Otsailak 23

17:00: Olalde-Añorga (Kadeteak)

Ondoren, Olalde-Lazkao (2. errege)

EMAITZAK

FUTBOLA

Arizmendi C 1 Antzuola (1)

PILOTA

Beloki-Olalde (Kadeteak)

Olalde-Ikasberri (Nagusiak)

Olalde-Kuku (Pala motza)

ELKARRIZKETA

PURITA ARREGI/IRAKASLEA

“Hainbat gauza barik bizi gaitezkeela ikasi dut Bolivian egon naizenean”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Antzuolar honek Iruñean egiten du lan, irakasle, baina gure artera ekarri badugu ez da horrengatik izan. Irakasle lanarengatik bai, baina bi urte Bolivian langintza horretan eman dituelako, hain zuzen ere.

Nolatan erabaki zenuen Bolivian irakasle joatea?

Aspalditik nengoen Hirugarren Mundua bertatik bertara ezagutzeko gogo. Bidaiatzen denbora bat eman ostean, Bolivian finkatzea erabaki nuen. Espainiako lekaike batzueganako jo, eta euren laguntzen bi urte eman ditut.

Zein egoera aurkitu duzu?

La Paz hiriburutik ordubetera dagoen El Alto hirian egon naiz. Milioi bat biztanle ditu eta horietatik asko nekazariak dira, herrietatik hirira joandakoak. Meatzaritza ere ahul dago, eta Potosi ingurutik jende asko joan da. Hiriburuak ustez bizimodu hobea emango dielakoan joan dira, baina errealtatea bestelakoa da.

Zure eginbeharrak zein izan dira bertan?

Eskola publikoko ikasleei laguntzea eta haiek motibatzea. Aimara herriarekin egin dut lan, eta oso itxiak dira. Gizartean beheko mailan daude, eta eskolara joateko aukera izan arren, etxean lagundu behar dutenez askotan ez dira joaten. Heziketa maila baxua da eta eskolari ez diote hemen adinako garrantzirik ematen.

Eta euren behar nagusiak?

Behar asko dituzte. Batzuk aipatzekotan, kalitatezko heziketa eta osasun zerbitzuak. Sendagilearengana joateagatik ordaindu egin behar dute; beraz, askotan umeak ez dituzte eramaten.

Irakasle lanetara joan zara. Zuk zer ikasi duzu?

Beste balio batzuk dituzte eta hainbat gauza barik bizi gaitezkeela ikasi dut. Han egon naizen denboran berogailuaren falta bakarrik sumatu dut.



KONTUOLA

“Umeak, etxean lagundu behar dutenez, aukera izan arren ez dira eskolara joaten”

Itzuli arren premia nahikoa dago. Nola lagun daiteke?

Nire asmoa da eurekin harremanetan jarraitzea, eta oporrak ditudanean bueltatzea. Baina hemendik laguntzeko modurik errazena dirua bidaltzea da. Diru

“Behar asko dituzte; kalitatezko heziketa eta osasun zerbitzua, esaterako”

hori ongi kudeatuz gero zerbait lor daiteke.

Anekdotarik ?

Urriaren egoera larriak bizi izan genituen. Gobernua aldatu zutenean hainbat istilu eta hildakok izan ziren gure inguruan.


PRESOAK

Jose Luis Erostegei ‘Eltzikorta’, itxialdian

I.A.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideek itxialdiak egiten dihardute euren eskubideak bete daitezkeen eskatzeko.

Hamar eguneko itxialdiak egiten hasi ziren, txandaka, eta laugarrenera iritsi dira dagoeneko. Hala, txanda horretan Antzuolako Jose Luis Erostegei *Eltzikortari* egokitu zaio itxialdian egotea. Otsailaren 3an hasi zuen eta domekara (otsailak 13) bitartean egongo da bakartuta, gelatik irten gabe.



KONTUOLA

Jose Luis Erostegei *Eltzikorta*.

MOBILIZAZIOAK

Horren harira, *Eltzikortaren* eta gainerako 717 presoek borroka-ekin bat eginez, Antzuolan hainbat mobilizazio antolatuta dituzte.

Gaur, egubakoitza, ostiralero bezala, elkarretaratzea izango da

Zurrategin, 19:00etan. Domekan, 12:30etik 14:00etara bitartean sindura bilketa egingo dute Zurrategin, eta tartean, 13:00etan elkarretaratzea izango da bertan.

LABUR

Tai-chi ikastarorako izena emateko epea zabalik dago otsailaren 24ra arte

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta tai-chi ikastaroa egiteko aukera egongo da martxoaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean. Hastapen ikastaroa izango da, eta eskolak martitzenetan eta eguenetan izango dira, Eguzki auzoan, 18:00etatik 19:00etara. Interesatuak otsailaren 24a baino lehen eman beharko dute izena udaletxean.

‘Pakitarentzat bakarrik’ antzezlanak izango da zapatu gauean Orlaran etxean

Bihar, zapatua, antzerki saioa izango da Orlaranen, 21:30ean. *Pakitarentzat bakarrik* antzezlanak egingo du Itziar Ituñok. Ezaguna da, besteak beste, *Goenkale* teleailean Nekane ertzainaren rola egiten duelako. Bihar, Itziar Ituñok arazoz betetako emakume baten paperean bakarrik egingo du.

Maristetako argazkiak eta materiala jaso nahi dituzte, martxoan erakusketa egiteko

Iaz San Joseren estatuaren 75. urteurrena bete zela eta, martxoan Maristei buruzko hainbat ekitaldi izango dira; besteak beste, erakusketa. Eta horretarako materiala bildu nahi dute; hala, Udalak herritarrei eskatu nahi die Maristetako argazkirik edo Maristekin zerikusia duen materialik izanez gero, udaletxera eramateko otsailaren 25a baino lehen.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko otsailaren 11a / 215. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Muxika: "Hilabete eta erdi barru hasiko dira babes ofizialeko etxeak egiten"

IRATI AGIRREAZALDEGI

Patxi Basauri alkatea eta Joseba Muxika zinegotzia GOITBko Debarri saioan izan ziren martitzenean. Alberto Gorritibereak gidatzen duen saioan, besteak beste industria-guneaz, errepideez, etxebizitzaz eta kulturaz jardun zuten.

Patxi Basauriri Elgetaren azken urteko argazkia egiteko eskatu zion Alberto Gorritibereak, eta honako elementuak aukeratu zituen: industria-gunea, kultura eta eguneko zentroa. Herritarrei galdera eginda ere asko izan ziren horiek berak aipatu zituztenak.

Joseba Muxikak etxebizitzaren gaiari buruz jardun zuen: "Elgeta bizi izateko toki egokia da, ikusi besterik ez dago biztanle kopuruak nola egin duen gora. Etxebizitza berriak eraikitzen ari dira. Orain badago aukera etxebizitza pribatuak erosteko eta aurki babes ofizialekoak ere erosi ahal izango dira. Hilabete eta erdi barru hasiko dira eraikitzen".



Joseba Muxika eta Patxi Basauri Debarri saioan izan ziren Alberto Gorritiberearekin.

Saihesbideaz ere hitz egin zuten: "Diputazioko ordezkariak asteon izan dira Elgetan, eta, gutxi gorabehera, apirilean hasiko dira lanak. Beraz, udazkene-rako lehen zatia amaituta egongo da", esan zuen alkateak.

Espalioz jardun zuten saioan, bai Udal ordezkariekin eta bai

kooperatibako Iban Arantzabalekin ere. Ingurumena, kirol-gunea, mendi museoa eta beste hainbat gaiez ere jardun zuten.

ERREPIKAPENA

Ikusteko aukerarik izan ez zuteneko bihar 16:00etan eta domekan 16:20an emango dute berriz.

KIROLA



Txapelketa Debagoieneko zirkuiturako puntuagarria izango da.

Pilota txapelketa martxotik maiatzera

I.A.

Federatu gabeko pilota zaleendako lau t'erdiko binakako txapelketa antolatu dute ibarrean. Martxotik maiatzera bitartean jokatu da Elgetako pilotalekuan. Lehen fasea liga erakoa izango da; bigarrena, berriz, kanporaketa bidez egingo dute.

Elgetakoa Debagoieneko txapelketa zirkuiturako puntuagarria izango da.

IZENEMATEA

Txapelketa martxoan hasiko da, parte hartu nahi dutenak otsailaren 24a baino lehen emateko beharko dute izena Elgetako Udal Kirol Zerbitzuan. Horretarako 943 76 80 22 telefonora deitu edo kirola@elgeta.net helbidera idatzi behar da.

Debagoieneko Kirol Zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta gontzakoek, 15 euro.

HERRITARREN HITZA / Geaxi Ezpeleta • Ikaslea

Hau, hau eta hura

Irri eta tristura, malko eta algara, lan eta parranda, neska eta mutil, gogoeta aldi eta eztabaida, aldarrikapen eta borroka, jai eta kultura. Non bildu hau guztia? Klasean? Taberna batean? Agian batzuk bai baina denak?

Demokraziaren aroan bizi omen gara, askatasun eta eskubideak errespetatu behar diren eta errespetatzen diren gizarte omen da gurea, denok daukagu elkartzeko, antolatze-ko eta adierazteko eskubidea. Eta, beraz, gu gazte izan arren eskubide hauen jabe gara. Gauzak horrela izaki, autogestioa, *asanblearismoa*, solidari-

tatea, laguntasuna, hau da, guk geuk gure askatasunaz baliatuz erabakitzen ditugun ezaugarriak betetzen dituzten guneak, gaztetxeak, kudeatzeko, erabiltzeko etab. erako askatasun eta eskubide osoa daukagu. Baina ez da bermatzen.

Ez da agian hedabideek garrantzia emango dien gaia izango, ez du agian gizarte-arentzat interes publikorik edukiko, baina bai eguneroko



"Pentsatzeko eta antolatze indarra duena zigortua eta isildua izaten da"

errealitate hau bizi dugunontzat. Golpe bat hemendik, beste bat handik, urteak aurrera eta gauzak berdinduz, utzarazte bortitzak eta ilusioz betetako okupazio berriak.

Non aurkitu eraso hauen zergatia? Agian gure indarrean, eta pentsatzeko eta antolatzeo daukagun kemenak ematen dien beldurrean.

Injustizien aurrean isiltzen ez garelako, inguratzen direnek

beste gizarte modu bat posible dela ikasten dutelako, inposatu nahi diguten pentsaera sinkroniko eta aurre finkatu horretatik ihes egiteaz gain ihes egiteko baliabideak eskaintzen ditugulako. Ezin dute jasan, herri honetako beste mugimendu batzuk jasan ezin dituzten bezala, pentsatzeko eta antolatzeo indarra duena zigortua eta isildua izaten da.

Baina erasotzailea erasotzaile, ikasia daukagu erasoan aurrean aurrera egiten eta utzaraztean aurrean berriz okupatzen.

Gazteak gazte diren heinean Gaztetxeak bizirik!

LABUR

Azoka Nagusiko jaiak antolatze bilera astelehenean

Azoka Nagusiko jaiak antolatze bilera astelehenean, otsailaren 14an, izango da 21:00etan, udaletxean. Jaiarako ideien bat dutenak, beste gabe jaiak antolatze parte hartu nahi dutenak, bertan batzarrera agertu nahikoa dute. Bertan, jaiak balorazioa aztertuko eta gero berriak pentsatuko dituzte.

MENDIA

Euskal Mendizale Federazioak bilera egingo du zapatuan

I.A.

Euskal Mendizale Federazioak ezohiko batzarra egingo du zapatuan Elgetan. Bertan, zuzendaritza batzorde berria aukeratuko dute hauteskunde bidez. Bi hautagai daude presidente posturako: Alvaro Arregi arrasatearra eta Arantza Jausoro gasteiztarra.

Zapatuan izango da Euskal Mendizale Federazioaren ezohiko batzarra, Espaloia Kafe Antzokian 16:30ean.


Bertan, Zuzendaritza Batzordea berritzeko hauteskundeak egingo dituzte. Bi hautagai zerrenda daude: Arrasateko Besaide elkarteak Alvaro Arregirena bata; eta Arantza Jausoro gasteiztarra da beste zerrendako burua.



Euskal Mendizale Federazioak urteko batzarra ere Elgetan egin zuen iaz.

Gaur egun Antxon Bandres da Euskal Mendizale Federazioko presidentea, baina aldatzeko erabakia hartu dute.

Bozketan parte hartu ahal izango dute mendi elkarteetako ordezkariak, hainbat teknikarik eta beste zenbait mendizalek.



Sei bikotek jardun zuten erretiratuen karta txapelketan

Erretiratuendako briska txapelketa izan zen eguaztenean Ozkarbi elkarteak. 12 emakumek hartu zuten parte eta bikoteka, liga eran, guztiek elkarren aurka jardun zuten. Miren Zenitagoiak eta Sebastianana Atorrasagastik osatutako bikotea izan zen irabazle eta Debabarreneko erretiratuen mahai-joko txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu dute. /I.A.

KAFE ANTZOKIA

Espaloiarene gainean bilera irekia

IRATI AGIRREAZALEGI

Espaloia proiektuaren nondik norakoak azaltzeko eta jendearen zalantzak argitzeko otsailaren 16an herritarrendako bilera irekia egingo dute Espaloian, 19:30ean. Espaloia-jardunaz eta funtzionamenduaz hitz egingo dute, besteak beste.

Batzarraren helburua da azalpenak ematea Espaloia-aren gainean. "Kalean esames eta informazio oker asko dago, eta bilera irekia eginda dena argitu nahi dugu", esan digute Espaloitik. Aretoa zabalduta zenetik izandako jardunaren berri ere emango dute.

Bestalde, bilera egunerako Udalarekin hitzarmen bat sinatua izango dute: "Udalarekin diruaz gaindi dagoen hitzarmen zorrotza dugu", azaldu digute.

Batzar irekia izango da, eta Espaloia-aren gainean galderak dituen edonor joan daiteke. Funtzionamenduaren berri ere eman go dute eta "eskertuko dugu norbaitek lantaldeetan parte hartzea", esan digute.

GUSTURA LANAREKIN

Programazio "trinkoa" izan dute orain arte, eta erantzuna "balekoa" izan da. "Oso gustura gaudete Espaloia-ekin ematen duenarekin. Inbertsioetara ere bideratu ditugu ahaleginak", esan dute.



GOIBEKOKALE

Ekitaldietan lortutakoa inbertsioetara bideratu dute.

LABUR

'El Decameron' antzezlanaren ikusteko sarrerak salgai ipini dituzte Espaloia Kafe Antzokian


Datorren otsailaren 18an *El Decameron* antzezlanaren ikusteko aukera izango da Espaloian, Ados teatroaren eskutik. Emanaldia 22:30ean izango da, eta, Espaloitik jakinarazi digutenez, sarrerak aurrez erosteko aukera izango da. Horretarako Espaloira bertara joan edo telefonoz egin daiteke erreserba (943 78 90 85). Ipuin bilduma da *El Decameron*, eta erotismoak indar handia du antzezlan horretan, baita umoreak eta ironiak ere. Boccacioren lana da, eta bertsoa, berriz, Jose Antonio Vitoria eta Garbi Losadarena.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale



Aro berria, erakusketa berria.



jakina
BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Amillaga 10
BERGARA
943 76 03 30

Goza itzazu OTSAILEKO preziorik onenak

Irteerak Bilbotik

- MALLORCA** 7 gau
D'or Tobago Hotela 3* • MO **172€**
- TENERIFE** 7 gau
Acuario Hotela 2* • MO **236€**
- LANZAROTE** 7 gau
Siroco Apt. 2G • OB **178€**
- KANARIA HANDIA** 7 gau
Green Sea Aph. 2G • OB **215€**
- TUNEZ** 7 gau
Sindbad Center Hotela 3* • ME **201€**
- AMSTERDAM** 2 gau
Hem Hotela 3* • OG **444€**
- ERROMA** 2 gau
Caravel Hotela 3* • OG **314€**

Irteerak Bilbotik

- LISBOA** 2 gau
Embaixador Confort Hotela 3* • OG **339€**
- PARIS** 2 gau
Montmartois Hotela 2* • OG **317€**
- BERLIN** 2 gau
Agon Lichburg Hotela 2* • OG **414€**
- LONDRES** 3 gau
Lily Hotela Turista • OG **288€**
- Irteerak Madrildik**
- SENEGAL** 7 gau
La Teranga Hotela 4* • ME **965€**
- CABO VERDE** 7 gau
Sobrado Hotela 3* • OG **451€**

Zure oporren erreserba otsailean eginda eta VISA txartela eskatuta, Week-End Plan taloi bat opari egingo dizugu

Hauk ditu barne: hegazkinean joan-etonia Bilbotik eta Madrildik eta lekualdaketak. Egonaldia logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean. Prezioak pertsonako otsaileko egun konkretuentzat bakarrik. Kontsultatu gehigarriak/deskontuak Espainiako beste aireportu batzuetatik. Tasak, gestio datuak eta karburantearen igoera ez daude barne. ESERLEKU MUGATUAK. PREZIO HORRE-TATIK AURRERA. OB: Ostalua Bakarrik; OG: Ostalua eta Gosaria; ME: Mantenu Erdia; MO: Mantenu Osoa; GB: Guztia Barne



6

hilabeteko finantzaketa interesik gabe lor dezakezu Doan, eskatzean eta berriztzean

36€-ko
Week-End Plan
TALOIA OPARI

Ez irudikatu. Egin.



Orain Ibargarai 2an gaude. BERGARA Telf: 943 76 44 45